



PRESENTAKETA

Hastapen batean Patxi AMULET eta Xabi ETCHEVERRYk Begiz Begi taldea sortu zuten haien unibertso musikalak partekatze asmoarekin. Haien doinu intimoen bidez, Euskal Herriko eszena desberdinetan aritzea lortu zuten. Lau urte berantago, haien proiektua urrunago eramaiteko, hiru musikari berri sartu ziren taldean. Naturalki, bakoitzak bere estiloa ekarri zuen eta denen artean moldaketa berri batzu sortu ziren.

Hertsiki lotutako unibertso eta bizitzen islada, rock-aren iluntasuna eta folkaren ezintasunaren arteko begian begiko asumi-tua, kultura aberats eta sakon baten misterioari nahasia, honela deskribatzen da Begiz Begiren mundua, iluntsu bezain dirdiratsua, argia bezain misteriotsua.

IBILBIDE BAT



Lehiaketa batzuen bidez, taldeak bere burua ezagutarazi ahal izan du. Hala nola Miarritzeko Atabaleko "Scène lycéennes" eta Baionako "Maimorables" lehiaketei esker.



Taldeak aukera ukan du fama handiko bi artista eta haien taldea segitzea : Jean François eta Alain Bernardini, I Muvrini taldearen 2009ko Giru Kortsikako itzuliaren kari.



Kalakan, Berri txarrak ala Anje Duhalde-kin eszenak partekatu ondotik, taldeak Baionako antzokian ospatu ditu Izarrak laukotearen 10 urteak.

EZAGUTZAK



"Talde honek musikalki arrunt inarrosi gitu eta eszena batzuk haiekin partekatu ditugu" ..IZARRAK..Euskal musikagile laukotea



" Begiz Begi euskal gazte eszenako etorkizunaz beteriko taldeetan sar nezake. Kalitatezko musikariez lagundutako gutitan gurutzatzen den boza batekin, Begiz Begi-k euskal musika garaikidearen errepertorioa berritzen du. " ..Mathieu Vivier.. Topopass sareko sortzailea



"Kalitatezko musika, su garra eta arraberritzeko gogoa : Begiz Begi taldeak euskal kantuaren eta musikaren geroa segurtatzen du" ..Pantxo Etxegoien.. Euskal Kultur Erakundeko Zuzendaria

❖ 2013. urtea

Begiz Begi taldeak 6 doinuko EP bat grabatu du, "Nora joan ?" izeneko. Vensac (33)-eko "L'Atelier" estudioan eta Antoine Gonzales-en eskutik. Diska horrek jatorrizko taldeak sortutako eta bost musikarientzat moldatutako doinuak edukitzen ditu eta taldearen eboluzioa adierazten du. Egonaldi denboran, bi bideoklipa grabatuak izan dira, "Nora Joan ?" eta "Laguneri" abestienak.

Ezagutza berriak egiteko eta beste mundu batzuei idekitzeko helburuekin, taldeak beste proiektutan sartzeari gogoia izan du. Ildo hori segituz, 2013an taldeak bere esku ukaldia eman du BARNE MIRAILA eta TXILINTXORI proiektuetan.

BARNE MIRAILA Baionako euskal museoan egindako erakustaldi bat da. Mundu desberdinetako 200 gazteek eman dute haien euskal kulturarekiko ikusmena. Begiz Begi-k gaurko euskal talde gisa parte hartu du erakustaldi huntan.

TXILINTXORI Urrats berriak elkarrekin idatzitako ikusgarri bat da (B.Elkegaray, J.Bordaxar eta C.Arcanuthurry). Haurtzaro eta nerabe denboren arteko pasai latza antzetzten du. Begiz Begi-k ikusgarriko musika osoa sortu du taulan diren 55 antzerkilari, dantzari eta kantarientzat.

Urtea bukatzeko, Begiz Begi-ren proiektua 2013-ko abenduaren 7an, DURANGO-ko AZOKAN aurkeztua da.

❖ 2014. urtea

2014-eko sasoina prestatzeko, Begiz Begi taldeak egonaldi andana bat egiten ditu kontzertu berri bat eta diska berri bat prestatzeko helburuekin.

Arrabita eta bozen arteko konplizitatea egonen da musiken ardatza, baina bost musikarien artean konposatzeak rock-aren eta barneratutako euskal erroen elkarketa indartuko du.

2014. urterako, taldea jadanik proiektu desberdin batzutan engainatu da.

❖ KONTAKTUA K

Taldea: begizbegi.taldea@gmail.com
+33 675 940 767 / +33 603 781 462

Pro: jeanne@karakoilproduction.com
+33 627 504 129